



## 1.- Etxean kontu kantari

Etxean, autoan edo txangoren batean gozatzeko aukerak eskaintzen ditugu gaurkoan. Etxean, eta haur txikiari janaria ematen diogun bitartean, “Txitxitela” esango zaio haurrari pure koilarakada bakoitza ematen zaionean. Kanta kantari aritzeko bigarren proposamena; kantuan eta txaloka aritzeko aproposa. Aztiak zurrin zurrin metatzen den ipuin bat da: zenbakiak gora eta behera doaz, istoriotxoa osatzen den heinean. Ezetz buruz ikasi eta antzestu.

[Gozatu kantuz eta kontuz!!](#)

## 2.- Ipuinez ipuin

Honez gero, munduari buelta eman diogu ipuinez ipuin haur txikiei kontatzeko ipuin bila. Eskaini dizkizuegun ipuin gehienak, munduko ipuin batean oinarrituta ere, berridazketa orijinalak eskaini dizkizuegu. Oraingoan ordea, ipuin klasiko bat ekarri dizuegu, **Don Manuel Lekuonak** ekarria, bere *Txuri ta Gorri ta Kukurruku* liburuan. Klasikoetan klasikoena, *Zazpi Antxumeak* Lekuonaren idazkeran. Zer esanik ez, apenas ukitu dugu haren bertsioa, eta zuzenean kopiatu dugu, moldaketa txiki batzuen ezean. Kontatu, antzestu, errezitatu eta batez ere, gozatu!

[Abrite portas, kris-kras!](#)

## 3.- Gela barnean

*Ur: Erori nahi ez zuen tanta.* Juan Kruz Igerabide / Elena Odriozola / Oihane Igerabide.

Proposamen anitza aurkituko du kutxa magikoa irekitzen duen pertsonak: ipuinak, poesiak, jolasean aritzeko aitzakiak. Kutxak baita ere CD batean gordetzen ditu musika ederra, kontakizun dramatizatu bat eta poesia errezitaldi txukunak. Baina azken sorpresa gordetzen du kutxak: euria gogora dakartzaten gardenkiak eta ipuinak sortzeko mila aitzakia, itzal batzuk erakusten dituen kartoitxo batzuetan.

[Ipuinez, musikaz eta poesiaz gozatzeko aukera aberatsa, beraz!](#)

## 4.- Egitasmoa martxan

Bularretik Mintzora egitasmoaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da eskoletan eta etxeetan Euskal Haur Literaturaren alde egin duen apustua. Haur literatura modu sistematiko batean erabiltzeak helduekiko lotura afektiboak areagotuko ditu, aldi berean, haurrari bere emozioei aurrez aurre begiratu eta ulertzen laguntzen dio. Egitaraua sistematizatzeko gure proposamenek beti izan dituzte hauek kontutan, lehen planoan ezarri dugularik jolasa eta plazera. Baina hizkuntz egituraketa honen guztiaren azpitik dator eta horrekin ere jokatu dugu: Haur Literaturaren ezaugarriek, batez ere, erritmoak, doinuak eta soinuek suspertzen dituzte norberak bere hizkuntza sortzeko dituen mekanismoak. Lan sistema honek BCBLren ikerketa lerro batekin bat egiten duen neurrian, gure egitasmoa auzipean jarri eta ikerketa zientifiko bati hasiera emango diote BCBLeko zientzialariek, Haur Literatura Egitarauak irakurketaren ulermenean izan dezakeen eragina aztertu nahian.